


# Erleak, ezti eta bioaniztasun ekoizleak

Erle kopurua nabarmen gutxitzen ari da gure planetan, eta askok uste izango ez duten arren, arazo handia da hori. Eztia, nektarra, propolioa eta argizaria sortzeaz gain uztak polinizatzen dituzte eta laboreak ere bai. Erlerik gabe, beraz, arriskuan egongo lirateke fruta arbolak, barazkiak eta bazkalekuak



## 1. Erreginak eta erlamandoek eusten diote espezieari

Erle langileek eta erlamandoek ordena handiz lan egiten dute erlauntz barruan, eta bizi ere halaxe egiten dira. Haien jarduera halakoxea delako zaintzen dute ekosistema hain modu eraginkorrean. Arrautzak alboetan erruten ditu erreginak, eta handik jaiotzen dira erleak. Arrautza ernalduta egiten bada, emeak jaioko dira, hau da, erle langileak; arrautza ernalduta gabetik, berriz, arrak edo erlamandoak. Eta behin ernalduta, arrautza erregina-gelaxka izeneko alboetan badago (kupula itxurakoak izaten dira), eta erregina-jelearekin elikatzen bada metamorfosi guztian, erregina jaioko da. Erregina-gelaxka bat baino gehiago eduki ditzake erlauntz bakoitzak, baina erregina bakarrak iraungo du bizirik, eta horretarako, elkarren artean borrokatzen dira, bakarra geratu arte. Erregina garailea erlauntzetik irteten da gero, eta eztei-hegaldia egiten du; ingu-

ruan dabilzan erlamandoekin gurutzatu, eta hil egingo ditu gero. Espermaz ongi hornituta, bere feromona zabalduko du erlauntzean. Arrautzak errun eta errun ariko da (egunean 2.000 ere jar ditzake aldirik opa-roenean), eta bere familia osatuko du: ehunka erlamando eta milaka erle langile.

## 2. Zazpi aste bizi: lan eta lan

Erle langileak 70.000 izatera iritsi litezke erlauntz batean. Zazpi aste eskaseko bizi izaten dute, eta lan eta lan aritzen dira, atsedetik hartu gabe (negu sasoiaren bost hilabete ere iraun dezakete bizirik, orduan izaten baitute lanik gutxien). Lehen lau egunetan, gelaxkak garbitzea izaten da haien lana; hamargarren eguna bitarte, larbak elikatzen aritzen dira (erregina-jelea, eztia eta polena ematen dizkiete), eta bi aste dituztenean, polena biltegitzeari ekiten diote, harik eta sabelaldea heldu eta argizaria sortzeko gai bihurtzen diren arte (abaraskak

berrosatzeko erabiltzen dute argizari hori). Lan hori egiteaz gain, zaindari ere jarduten dute, eta erlamandoak eta gainerako intsektuak eztenarekin uxatzea izaten da haien lana. 22 egun behar izaten dituzte erle heldu bihurtzeko, Apis mellifica, eta horretara iritsita, uztan biltzera ateratzen dira. Lorez lore ibiliko dira hegana, hil arte.

## 3. Erleen barbaroa

Landareak loretan dauden garaian, egunean gutxienez hamar joan-etorri egiten dituzte erleek erlauntzera (erreginaren usain bereziak esaten die zein den eurena). Erleek hizkuntza berezia dute, kodetua eta zehatza: dantzaren bidez mintzo dira. Elikagai iturriren bat aurkitu badute, erlauntzera itzultzen direnean, dantza egiten dute; dantza batzuk zirkularrak dira, eta besteak 8 zenbakia irudikatzen dutenak. Dantza horiekin eta gorputz enborrari dardara eginaraziz, elikagaia aurkitu dutela jakinarazten dute, eta zein



distantziatara dagoen ere bai. Eta han joaten dira erleak nektarra biltzera, larbak elikatzeko. Uztan bildu ez ezik, zabaldu ere egiten dute, basa espezieek eta landareek fruitua emateko behar dituzten substantziak barreiatuz. Hegaldi polinizatzaile horri esker, landare eta zuhaitzen loreak ernalduta egiten dira, eta orduan sortzen dira fruitu eta haziak. Gizakiak aspalditik du horren berri; antzinako Egipton, adibidez, erleak hazten zituzten.

## 4. Erlezaintza: iraunkortasun eredu

Erleak hazi egiten ditu gizakiak, beste abere batzuk bezala, eta erlezainak, ondorioz, abeltzainak dira; baina laborari ere badira, eztia biltzen dute eta. Antzinako garaian, erleen eztia eskuratzeko, abaraskak zatitu egin behar izaten zituzten, baina 1941ean, Lorenzo Lorraine Langstroth erlezaina ohartu zen erleek sei milimetroko tartea uzten dutela argizari abarasken artean,



eta koadro higikorren sistema sortu zuen hortik, zeinak aukera ematen baitu eztia ateratzeko bizi-zikloa eten gabe. Erlezainek ez dute ezirik biltzen, ziurtatu arte erlekoloniak ez duela haren beharrik izango neguan, eta biltzen duten hori erleei sobera geratu zaiena izaten da, euren beharrak ase ondoren gelditu dena. Iraunkortasunaren legeak agintzen du hala jokatzeko: erleek ez badute jangairik negua pasatzeko, hiltzea baino nahiago izango dute beste norabait emigratzea.

## 5. Eztia, beste gabe

Uda hasiera edo erdialdean lortzen da lehen eztia. Koadroak erlauntzetik atera eta eskuila pasatzen zaie, erleak askatzeko. Abaraskak argizarizko operkuluz edo tapakiz estalita egoten dira, eta horiek kendu ondoren, abaraskak zentrifugatu eta eztia ateratzen zaie. Ontziratu aurretik, hala ere, iragazi egiten dira, zikinkeriak kentzeko.



## 6. Propolioa, argizaria, polena...

Neguko hotzetik babesteko, erretxina-substantzia batekin tapatzen dituzte erleek erlauntzaren zuloak, propolioarekin, alegia. Urte sasoi epelagoak iristen direnean, babes-funtzio hori galdu egiten du propolioa, eta gizakiok elikagai bihurtzen dugu, organismoaren defentsak indartzeko. Polena, berriz, lapurtu egiten zaie erleei (bi kilo, gehienez ere, sasoi bakoitzean); atexka moduko bat jartzen da erlauntzerako sarbidean, erleek polena barrura eramanez ez dezaten. Sendagai bezala erabiltzeko izaten da polena, baina negua larregi luzatzen bada, abereak elikatzen ere erabiltzen du erlezainak. Eta argizaria, berriz, operkuluetatik eta abaraska zaharretatik lortzen da. Erleek jariatutako argizaria, ez ekoitzi, eta eztia atera ondoren biltzen da, sobera geratu dena. //

